


## Lana / La obra

Bueltan da Toure, San Frantzisko auzoko detektibe berezia, bizilagun afrikarrentzat agurgarria, emakume zurientzat desiragarria eta polizientzat mespretxagarria. Bolada txar batetik pasatzen ari den momentuan ustezko anaia baten bisita jasoko du bere patera-pisuan, lekua egingo dio afrikar abegiaren izenean eta, erabaki horren erruz, arazo larriak sortuko zaizkio, lapurreta, droga-trafiko eta hilketa kasuetan belarrietaraino nahastuko dutenak.

*19 Kamera* arrakastatsuaren ondoren dator *612 Euro*. Toureren sagako bigarren nobela hau ere Euskal Herriko ghettorik handienean kokatuta dago, Bilboko San Frantziskon. 612 euro instituzioek behartsuenei hilero ematen dieten kopurua da, sanfrantziskotar askoren esperantza bizirik irauteko.

Gordintasuna eta umorea konbinatuz, Jon Arretxek erritmo biziko eleberria eraiki du, irakurlea lehen orrialdetik harrapatu eta amaiera arte oharkabean daramana.

## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **612 Euro**
Egilea / Autor: **Jon Arretxe**
Saila / Colección: Uzta gorria, 12
Azaleko irudia / Imagen de cubierta: Cristina Fernández
ISBN / EAN: 978-84-9746-839-8
Salneurria / Precio: 19,20 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / Nº páginas: 256
Formatua / Formato: 13,5 x 20,5 cm

## Egilea / El autor

**Jon Arretxe (Basauri, 1963)** Euskal Filologian doktorea da, Heziketa Fisikoan lizentziatua, eta piano eta kantuko ikasketak ere baditu. Egile polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibide idaztea, eta kantatu ere egiten du, gehien bat Bilboko eta Iruñeko Opera Koruetan. Sortu dituen hogei bat liburuen artean bidaia-narrazioak (*7 kolore, Tubabu, Oroituz*...), umorezko istorioak (*Ostegunak*...), beldurrezkoak (*Sustrai beltzak*...) eta nobela beltzak dira nagusi. Azken genero honi dagozkio *Morto Vivace*, *Fatum*, *Xahmaran*, *Tangerko ametsak*, *19 kamera* eta azken lan hau, *612 euro*.

Egileak esker onez jasoko lituzke era guztietako iritziak liburu honi buruz:
www.jonarretxe.net
jonarretxe@yahoo.com

ISBN: 978-84-9746-839-8
9 788497 468398

www.erein.com

erein